

 BOOKTEGI

liztorren akabera

MAITANE PEREZ



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

MAITANE PEREZ

Liztorren akabera

GORLIZ

|

—OSTIA!

Oihu itzela bota du Eiderrek balkoiko atea ireki eta liztor-habia ikusi duenean. Paretaren zati handi bat hartzen du, eta liztorrak hara eta hona inguruan dabiltza zarata aztoragarria ateraz. Eiderrek barrura itzuli eta erabat itxi du balkoiko atea. Erdi irekita zegoen ondoko leihoa ere itxi du, danbateko batez. Barrura begiratu du, adi, izkina guztiak miatuz, barrura sartutako liztorren bila. Bat ikusi du ezkerreko paretan, sofa marroiaren gainean. Sukaldera joan, paper bat eta baso bat hartu eta basoarekin liztorra harrapatu du. Gero papera azpitik pasa eta kontu handiz, eskuarekin papera eutsiz, leihora hurbildu da berriro. Esku librerik ez eta sorbaldarekin eragin dio leihoko heldulekuari eta azkar askatu du liztorra kanpoaldean, leihoa berriro danbateko handiago batez itxiz, azkar-azkar, liztor gehiagorik ez sartzeko. Berriro ere begiratua bota dio egongelari baina ez du besterik ikusi. Maleta alde batera mugitu eta etxea aztertzerantz abiatu da, gelaz gela liztorren bila. Ez du ematen liztorrei etxe barneko ekosistemak arreta gehiegi deitu dienik. Beste aldera ematen duten leihoak itxi edo ez itxi egon da tarte batez. Hilabete osoan hutsik egon den etxe barneko airea astuna da eta irekita utzi ditu azkenean liztor-habiatik urruti dauden geletako leihoak.

Egongelara itzuli da eta zutik geratu da tarte batez gelaren erdi-erdian. Sofa marroia ezkerrealdean, telebista berria kontrako paretan, izokin koloreko eserlekua sofaren ondoan. Sofaren gaineko paretan marko zuri diskretuak dituzten bi koadro abstraktuek kontraste handia egiten dute eskuineko pareta ia osoa hartzen duen kristalezko iruditxo eta entziklopedia moduko liburu zaharrez betetako amonaren armairu marroi handi eta distiratsuekin. Estilo eta garai nahasketa handiko gela heterogeneoa da, belaunaldi ezberdinek haien ekarpena egin duten leku amankomuna. Isiltasuna erabatekoa da gela barruan, kanpoan dauden liztorrek ateratzen duten zarataren oihartzunak besterik apurtzen ez duena.

Sakelakoa hartu eta aitaren zenbakia markatu du:

—Aita! Kaixo! Aita? Bai, aita, ni naiz, bai —hitz egiten duen bitartean egongelatik bueltaka hasi da—. Dena ondo, bai —liztor habia begiratu du—. Etxea ondo dago, lasai. Garbitu eta

txukunduko dut, eta gero... bai, bai, paseo bat ematera joango naiz Ainhoarekin. Ondo bazkaldu duzu? A... a... ados. Beno, bihar deituko dizut berriro, ados? Ale, muxu bat, agur, agur.

Eiderrek sakelakoa prakaren atzeko poltsikoan gorde, maleta hartu eta pasabidea zeharkatu du, bukaeran dagoen logelaraino. Armairu diskretu bat, ohe handia eta Ikeako aulki bi, besterik ez dago logelan. Maleta ohe gainean ireki eta arropak ateratzen hasi da. Ez dauka gauza askorik. Armairu barnean antolatu ditu prakak, kamisetak eta jertseak, azpiko kaxoietan kulero eta galtzerdiak eta paretaren kontra utzi ditu pare bat sandalia eta zapatila batzuk. Jantzita dituen zapatilak sandalia eroso batzuekin aldatu eta maleta albo batera utzi du. Bere gorputza ohean erortzen utzi du, buruz gora, eta atzeko poltsikoan molestatu dion mugikorra atera du. Berriak irakurtzera sartu da eta beherantz eman dio hatzari, interesik gabeko berri batzuk baztertuz. Argiako publikazio bat ikusi du orduan: “Ertzaintzak Lander Arriola preso ohiaren ongietorria eragotzi zuen atzo...”. Eider eseri egin da, estu, eta arretaz irakurri du berri osoa. Publikazioarekin bat agertzen diren zenbait argazki aztertu ditu, hatzekin banan-banan handituz. Lander Arriolaren argazkiarekin irribarre txikia irten zaio eta begi distiratsuekin aztertu dizkio ilea, begiak, kokotsa. Ondoren argazkietako atzeko partean dauden pertsonen artean arretaz bilatu du, denak ondo miatuz. Azken argazkia aztertuta lasaitasun hasperen bat egin eta mugikorra blokeatu du, ohe gainean utziz.

Orduan ikusi du liztorra, krema koloreko armairuaren atean, bere aurrean. Hanka puntetan atera da gelatik, liztorra geldi-geldirik zegoen lekuan manten zedin eta azkar abiatu da egongelara, han utzitako basoa eta papera hartzera. Berriro ere operazio berdina egin du baina honakoan logelako leihotik bota du liztorra. Etxeko beste aldeko leihoak ere ixtea erabaki du. Egongelara bueltatu da eta balkoiko kristalaren kontra jarri liztorren joan eta etorria behatzen geratu da, erne, kristalak erabat babestuko ez balu bezala. Aztoramena dario habiari eta Eider ere aztoratuta sentitzen ari dela ematen du, gorputzean dar-dar arin baina urduria. Tarte batez horrela egon ondoren, erabaki bat hartzen duenaren determinazioarekin logelara itzuli da sakelakoaren bila. Berrietatik atera eta telefonoaren aplikaziora joan da. Momentu batez pantaila zuriari begira geratu da, eta eskuek dar-dar egin diote. Hortzak tenkatu ditu. Sabaira begiratu du eta pauso batzuk eman ditu, inora joateko aukerarik ez daukanaren erara. Begiak igurtzi ditu beste eskuarekin eta azkenean udaltzaingoaren zenbakia markatu du.

—Arratsalde on, bai... zera... nire etxean liztor-habia agertu da... bai... Gorlizen, bai... ados.

Pasabidetik ibiltzen hasi da, inora bezala aurrera eta atzera. Helbidea eman die eta zain geratu da une batez.

—Bihar arte ezin dira etorri?... ados... ados, bai. Ados, mila esker.

Telefonoa eskegi du eta pasabidearen erdian geldirik geratu da antzinako itsasontzi baten koadroari begira. Keinu desatsegina egin du Eiderrek marko rokoko kargatuari erreparatu dionean. Koadroa bere lekutik kendu eta gauzaz beteriko ezkerreko logelan utzi du, beste koadro eta kutxa handien ondoan.

Gelara itzuli, maleta ondo itxi, izkina batean txukun kokatu eta irekita geratu diren armairuko ateak itxi egin ditu. Sukaldera joan da gero eta hozkailua ireki du. Hutsik dago. Sukaldeko erlojua geldirik dago, pilarik gabe, eta mugikorrean begiratu du ordua. Komunera joan da pixa egitera.

Egongelara itzuli da ondoren, eta balkoiko ateko kristalera hurbildu da, berriro ere liztorrak begiratzera.

—Elkarrekin bizi beharko dugu egun batez —esan du ahots etsituarekin, eta liztorrek bere zurrumurruarekin erantzun diote.

Sofan eseri da une batez. Denbora dauka eta jada ateratzeko prest dago. Sakelakoa hartu du berriro ere. Ainhoaren mezu bat dauka: “Zu ikusteko gogotsu nago. Gogoratu, 18:00etan Astondoko puntan!”. Irribarre egin du Eiderrek, baina ezinegon txiki batek hartu du. Ondoren argazki galeria ireki du eta Landerrekin atzo ateratako argazkiak ikusi ditu, mantso, hunkiturik, noizean behin begiak igurtziz. Argazkietan daraman kamiseta berdina darama gaur jantzita, ilea bilduta eta praka motzak. Argazkietan haizeak ile soltea mugitzen dio, Landerrek aurpegitik kentzen dio irribarre handiarekin.

AINHOAK ETA EIDERREK antzeko ibiltzeko-sandaliak dituzte. Grazia egin die besarkada luze eta estutik askatu direnean.

—Urteak... —esan du Ainhoak ahots hunkituarekin.

—Bai, hala da.

—Desagertua egon zara.

Eiderrek irribarre egin du baina ez du ezer erantzun, eta oinez hasteko keinua egin dio aspaldiko lagunari.

—Zein aldatua dagoen hau guztia —esan du ingurua aztertuz.

—Eraikinak bota zituzten eta naturak berehala hartu du bere lekua.

—Ederra dago.

Uretako puzgarriak hutsik daude. Ekaitza amaitu berri da eta lurra bustita dago. Jende gutxi dabil oraindik, euriak izututa edo, eta egun sargoria epeltzen duen ekaitz osteko haize fresko ederra arnastu daiteke. Bi lagunak irribarretsu doaz, baina isilik, denborak haien artean eragindako hutsunea neurtuz bezala.

—Zer moduz zaude? —apurtu du isiltasuna Eiderrek.

—Ba beno, nahiko ondo. Jakingo duzu Aitor eta biok banandu egin garela.

—Bai, banekien, sentitzen dut.

—Lasai, ondo nago. Aspaldian sentitzen nuen horrela izan behar zuela, baina badakizu, ez da hain erraza pausoa ematea.

—Ez da, ez.

Nahi gabe pausoak berdindu zaizkie eta martxa motel batean ari dira, bata bestearen alboan, badiako pasealekuan aurrera.

—Bestela ondo —jarraitu du Ainhoak—, lan berdinarekin jarraitzen dut, jubilatzeke gogoekin!

—Ba oraindik...

Barre egin dute bi lagunak eta Eiderri begitartean zeukan zimurra leundu egin zaio. Familia bat pasa da bizikletekin kontrako norabidean, denak kasko arrosak jantzita. Eten txiki bat egin behar

izan dute itsasoa ikusten ari ziren bi mendizale itsasargira doan bidea hartzeko aurretik gurutzatu zaizkielako.

—Eta zu? —galdetu du Ainhoak, laguna zuzen begiratu gabe.

—Zer?

—Ea zer moduz zauden. Urteak eman dituzu hemendik agertu gabe, non egon zara?

—Beno.... ni ere banandu egin naiz —erantzun du Eiderrek, eguzkitako betaurrekoak estutxetik atera eta pixka bat garbitzen dituen bitartean.

—A... ba nik ere sentitzen dut.

—Bera Iparraldean geratu da eta ni itzuli egin naiz —betaurrekoak jantzi ditu.

—Frantzian egon zara urte hauetan guztietan?

—Bai.

—Eta hori?

—Aspaldian joan nintzen... ihesi.

Dunei begira geratu da Eider, duna gazte eta biziei. Haize finak landareak mugitzen ditu eta isiltasuna kaioen karrankarekin nahasten da. Itsasoa bare dago eta ez du apenas soinurik ateratzen.

—Gogoratzen duzu Lander? Lander Arriola? —jarraitu du Ainhoaren isiltasunaren aurrean.

—Bai, kartzelan egon dena?

—Etxean gordeta izan nuen. Baina egun batean alde egin zuen eta berehala jakin genuen atxilotu egin zutela. Torturatu egin zuten. Eta nik... beldurrez.... ihes egin nuen.

Ekaitzarengatik itxita egon den txiringittoa zabaltzen ari dira berriro ere, aulkiak zuzen jarritz eguzkiak lehortu ditzan. Eraikinaren kolore gorriak eta aulkien urdinak kontrastea egiten dute atzeko pinudi eta harearekin. Ainhoa barraren beste aldean dagoen gizonaren mugimenduei begira geratu da.

—Harrituta utzi zaitut... —ez du hainbesteko eguzkirik egiten eta Eiderrek atzera betaurrekoak kendu ditu eta bere estutxean gorde.

—Horregatik egon zara hainbeste urtez desagerturik?

—Beno, kontu ezberdinak izan dira.... Hasieran horregatik izan zen, ez nintzen itzultzera ausartzen, beldur ikaragarria nion torturari, pentsa, zapatilak jantzita lo egin nuen badaezpada...

Eta Iparraldean seguruago sentitzen nintzen. Gero bikotekidearekin hasi nintzen eta bertan geratzea aukeratu nuen.

—Ezkutatuta egon zinen orduan...

—Bai.

—Ez nekien...

—Badakit.

Lagunak isilik geratu dira une batez ospitaleko hormaren aurretik pasatzen diren bitartean. Horma luzean dunak sinbolizatzen dituen mural bat dago margotuta, dunetako landare eta animalia asko irudikatzen dituen. Isiltasunean begiak animalia ezberdinetan pausatu dituzte eta aurrera jarraitu dute. Haien pausoak jada ez daude konpasatuak baina elkarrekin jarraitzen dute, bata bestearengandik oso gertu, inguruko guztiak elkarrengana bultzatuko balitu bezala.

—El Duesoko espetxea ekartzen dit gogora beti ospitale honek —esan du Eiderrek isiltasuna apurtu nahian—. Gaixoe eta presoek itsasoa ikusteko aukera bera daukate.

Baina isiltasuna ez da hautsi eta horrela jarraitu dute pixka batean aurrera, itsasoaren infinituari begira.

—Ez dakit zer esan —bota du azkenean Ainhoak.

—Lasai.

Urrutian kai-muturreko pintada ikusten da. “Independentzia” handi bat eta “Askatasuna” are handiagoa. Eiderrek begiak bertan iltzatu ditu, eta berriro ere begien arteko zimurra agertu zaio.

—Tentsio handiko ihesa izan zen. Ertzaintza nire atzetik zegoela sumatu nuen, sekretak ikusi nituen etxe azpian, eta lanera joan ez nintzen egun batean han agertu zirela abisatu zidaten. Ez nuen gehiegi pentsatu. Gero askotan bueltak eman izan dizkiot, beste ezer egiterik ez ote neukan, baina momentuan...

—Iparraldean jendea ezagutzen zenuen?

—Ez, zuzenean ez. Baina berehala egin zidaten harrera eta asko lagundu ninduten.

Ainhoak ere begiak urrutiko pintada handian pausatu ditu, baina berehala mugitu ditu itsaso urdinera eta Barrikako kala aldera.

—Zaila izan behar zuen...

—Oso. Askotan erotuko nintzenaren sentazioa nuen, jakin gabe zer gertatuko zen, jakin gabe zer egin, betirako izango ote zen beldurrez, lanik topatzeko ia aukerarik ez, dirurik gabe... Behin gastroenteritis oso gogor bat hartu nuen eta ezin izan nuen medikura joan, ez nintzen ausartu. Arrisku handia zegoen eta ni... erotzeko moduan egon nintzen. Pentsa, hainbesteko beldurra genion kanporaketari gainean arma bat eramatea proposatu zidatela.

—Zertarako?

—Horrela Frantziako poliziak atxilotzen baninduen Frantzian bertan epaituko ninduten eta tortura saihestuko nukeen.

—A...

—Baina nik ez nuen nahi izan... eta kanporaketaren beldurrarekin bizi nintzen egunero, egunero.

—Eta zure familia?

—Bost urte egon ginen elkar ikusi gabe. Komunikazioa ere oso eskasa zen, ia ez nituen deitzen eta deitzen nituenean ia ezin nien ezer kontatu. Haririk gabe bizitzea bezalakoa da. Zauden lekura eusten zaituen ezer ez da kontagarria. Deia mozten nuen bakoitzean beste infernu bat hasten zen, ezin zenion amari esan “ama, gaizki nago, etxera noa”, ez, aurre egin behar zenion egoerari. Ze azkar bukatu duten, ezta? —galdetu dio egurrezko pasarela zeharkatzen duten bitartean. Egur bustiaren usainak dena hartzen du eta sakon arnastu du lagunari begiratzuz.

—Bai, berehala egin dute.

Ainhoak eskua egur epelezko eta bustitako barandan jarri du eta horrela ibili da, eutsita, pasarela zeharkatzen bukatu duten arte.

—Behin iheslari bat kotxe istripu batean hil zen eta nahita ez zuten haren izenik esan. Nik etxera deitu nahi nuen etxekoek ni ez nintzela jakin zezaten, baina ezin nuen. Ez dakizu ze gogorra izan zen hori...

—Uf...

—Beranduago bisitak egiten hasi ziren, gauzak pixka bat lasaitu zirenean, asteburuetan etortzen ziren batzuetan bisitan.

—Orduan hobeto!

—Berriro ere joaten zirenenean oso gogorra izaten zen. Ez duzu ez han ez hemen egon nahi, eta ez zaude inon. Ezereza da sasia... —sakon hartu du airea Eiderrek pinu bustien usaina barneratzeko—. Baina bai, bisitak asko eskertzen nizkien. Eta ederrak ziren. Ama hil zen arte...

—Bai, jakin genuen.

—Aita ez zen animatu bera bakarrik etortzen. Ni jada Pierrekin nengoen eta arriskua txikiagoa bazen ere ohitu nintzen han egotera, ohitu nintzen urruti egotera...

—Duela urtebete hemen zinen...

—Bai, erlazioa bukatu zenean jada ez nekien zer egiten nuen han, jada gauzak aldatu dira, beldurra asko baretu egin da eta beno, aita zahartua dago oso... beraz, itzuli egin nintzen. Azken hilabetea berarekin eman dut, laguntza behar du gauza askotarako. Bestela hemendik egon naiz, baina ez naiz asko atera, badakizu.

—Buelta ez zen erraza izango...

—Ez. Bilbora itzuli nintzen lehenengo baina berehala erabaki nuen hemengo pisura etortzea. Dena aldatuta aurkitu dut, jendea, lekuak, bai hemen eta bai Bilbon, jendea zahartu da, gaztetxoak ez ditut jada ezagutzen... eta ezin izan dut lana oraindik topatu, pentsa.

—Bai, kontua ez dago erraza.

—Eta urte askotan hemen lan egin gabe egon ondoren... Horregatik pisua alokairuan jarri dut.

—Bai? Hemengoa? —footing egiten ari den mutil batek ia-ia aurretik eraman du eta modu zakarrean mugitu behar izan da berari lekua uzteko.

—Aizu! —oihu egin dio Eiderrek kaskoak jarrita daramatzan mutilari—. Bai, hemengoa. Hemen ez dut nire lekua topatzen, Ainhoa... ez hemen eta ez Bilbon. Baina han aitarekin egon naiteke eta momentu honetan ekonomikoki aukerarik hoberena da. Aitak ere ez du pisu hau ezertarako nahi, ama hil zenetik ez dator gehiago.

—Ya...

—Pena ematen dit, baina...

Bankuan eserita dagoen adineko bikote bati erreparatu dio. Gizona gurutzegrama bat egiten ari da egunkaritik moztutako orrialde batean eta emakumeak itsasoa begiratzen du burua airean uzten duten bisera horietako batekin. Lasai daude, eroso, presarik gabe, zimurrez eta bizipenez beterik.

—Bueltak politak dira, baina ez da dena poza. Gainera hango jendea asko botatzen dut faltan, lagundu ninduten horiek guztiak...

—Hor erlazio politak sortuko ziren.

—Bai, ez denak, baina bai. Leialtasun handia topatu dut. Hori izan da niretzat gauza oso garrantzitsua, leialtasuna.

—Ufa, gai potoloa da.

—Bai. Orain zuri hau guztia kontatzen ari natzaizu eta oso harrituta nago nire buruarekin — irribarre handia egin du Eiderrek.

—Agian txikitako lagunak izateak beste harreman mota bat sortzen du... —eskua sorbaldan jarri dio maitekiro. Gelditzeko imintzioa egin dute baina aurrera jarraitu dute mantso.

—Erlazio politak sortu nituen han eta beste batzuk oso mingarriak izan dira, bakoitzaren erabakiek errespetagarriak izan behar dute baina, dezepzioa ere hor dago... Oso gai potoloa da dezepzioarena ere bai.

—Bai, oso.

—Hemengo jendea ere faltan botatzen nuen, noski. Faltan botatzen zintuztedan. Baina beti bezala, bueltatzerakoan joan aurreko tentsio asko hor topatu ditut oraindik ere...

—Bilbon?

—Bai... aitarekin, nebarekin, nirekin zegoen jendearekin... Nik ihes egin nuen baina asko hemen geratu egin ziren eta... gauza asko gertatu dira.

—Zure laguna Peiorena ere, ezta?

—Bai... Espetxean bere buruaz beste egin zuenean gauza asko mugitu ziren, tentsio asko sortu ziren eta nik ihes egin nuenean horretatik guztitik ere aldendu nahi izan nuen. Baina bizitzak gauzak ekartzen dizkizu gainera behin eta berriro.

Bere ugazabekin paseatzen ari diren bi zakur ero bezala zaunkaka hasi dira emakumeen bi alboetatik, borroka baten erdian harrapatuta geratu izan balira bezala. Belarriak estali behar izan dituzte zaunken bolumenagatik eta are gehiago estutu dira bi emakumeak bata bestearen kontra. Txakurren jabeek ia ezer egin gabe aurrera egin dute euren txakurrekin eta isiltasuna itzuli da pasealekura.

—Atzo Lander kartzelatik atera zen.

—Bai, ikusi nuen. Poztu nintzen.

—Baita ni ere. Baina horrek tsunami handi bat ekarri dit gainera. Etxean ikusi nuen azkeneko aldia, bere atxiloketa, nire ihesa...

—Joder, Eider, ez nekien bizi izan duzun guztia...

—Badakit, ezin nizuen kontatu, edo ez dut nahi izan, ez dakit... Baina zuk beti konfiantza handia eman didazu eta gaur, ba, horrela atera zait...

—Noski, kontatu lasai behar duzuna...

Gelditu egin da Eider, eta Ainhoa berarekin. Aurrez aurre daukate orain kai-muturreko pintada eta Eider bi eskuak barandan jarrita harantz begira geratu da. Ainhoa isilik kokatu da lagunaren ondoan eta begirada itsasora zuzendu du.

—Oso kuriooa da, badakizu? Urteak eman ditut inori ezer kontatu gabe eta orain dena borborka ateratzen ari zait zurekin, eta ez dakit oso ondo zergatik. Isiltasuna nagusi izan dut urte hauetan guztietan, orduak eman ditut bakardade handi batean murgilduta. Hori izan da agian gogorrena, bakardadea eta isiltasuna.

—Beno, gutxienez Pierrekin zeundenean jada hobeto egongo zinen.

—Bai, baina beti izango zara errefuxiatu bat. Nik gauza asko ezin nituen egin. Hasieran ezkutatuta bizi izan nintzen, etxe batetik bestera ibili nintzen, erosketak egitera beti denda ezberdinetara joan behar nuen, apenas ateratzen nintzen kalera... —Eider martxa motelean jarri da berriro eta Ainhoak jarraitu egin du—. Pixkanaka hango jendearekin harremanak egiten hasten zara baina harreman horiek muga bat daukate, limite bat, gezurretan oinarritzen direlako. Ez dakizu zenbat gezur esan ditudan, Ainhoa... Eta iristen da momentu bat erabaki behar duzuna erlazioa erabat moztu edo egia kontatzea. Hori gutxi bakar batzuekin egin dezakezu.

—Pierrekin egin zenuen.

—Bai, eta berak erabat babestu ninduen. Nire ondoan egon da denbora honetan guztian. Baina beldurrak eta mamuak oso handiak dira... Beldur handia nion adibidez istripu bat izateari. Beldurra bai istripuari eta bai istripua izanez gero gertutasunagatik Donostiako edo Iruneko ospitalera eramateari. Polizia kontrolak oraindik ezin ditut dar-dar egin gabe igaro. Amarekin egin nuen dolu prozesua ere oso gogorra izan zen...

—Imajinatzen dut.

—Arraroa da prozesua, erbestean dolua ez da modu logikoan egiten. Eta azkenean denak faktura pasa digu...

—Erlazioak ez dira inoiz errazak, eta egoera horretan... —Ainhoa gelditu egin da eta besarkada bat eman dio Eiderri, besarkada labur eta azkar bat. Bi hondartzak bereizten diren puntuan jende gehiago dabil eta haiei begira geratu da nerabe talde bat, zeozer esanez eta txistu eginez —. Ba ni pozten naiz berriro bueltan zaudelako.

—Eskertzen dizut —martxan jarraitu dute.

—Eta pisua... nola jarri duzu alokairuan? Etxe-agentzia baten bidez?

—Idealistan jarri dut.

—A, eta horrek ondo funtzionatzen du?

—Ba ez dakit, hori esan didate.

—A, ados. Ba ea zortea daukazun.

—Bai, hori espero dut. Bitartean egun batzuk geratuko naiz hemendik, etxea txukuntzen eta pixka bat arnasten.

—Ba bihar eguerdian neskekin geratu naiz, festetako mozorroa pentsatzeko. Animatuko zara?

—Ez dakit festetan egongo naizen...

—Hala ere etorri bihar, ardotxo bat hartuko dugu. Horrela hauek ere ikusiko dituzu eta denak elkarrekin egongo gara tartetxo batez.

—Nortzuk egongo zarete?

—Leire, Iratxe, Esti eta laurok.

—Ados, ba animatuko naiz.

—Oso ondo.

—Beno, nik jada hemen buelta emango dut —esan du Eiderrek, puntu kardinalak markatzen dituen izarraren erdi-erdian geldituz—. Metrora zoaz ezta?

—Bai, bai, nik hemendik jarraituko dut.

—Kristoren txarla eman dizut gaur...

—Lasai, pozten naiz zutaz jakiteaz eta eskertzen dizut zure istorioa kontatu izana. Oso gogorra izan da bizi izan duzuna, harrigarria egiten zait hainbeste denbora egotea itzuli gabe. Ez zenuen aukerarik ikusi lehenago?

—Egon zen momentu bat... iheslari eta erbesteratu askok kolektiboki bueltatzeko erabakia hartu zuten, hor babes handia zegoen, baina ni ez nengoen prest, beldurrez nengoen oraindik. Beldurra ematen zidan bai jaso nezakeen errepresioak eta baita ere gertatzen ari ziren gauza guztiekin nire lekua ez topatzeak... Hemen ere, denek seme-alabak izan dituzue eta bizitza *normalak* eraiki dituzue... Oraindik ez bueltatzea erabaki nuen, ez zen erabaki erraza izan, baina beno, egia esan torturaren mamuak erraztu zidan erabakia, ez pentsa.

—*Ya...*

—Gero familiari nolabait itzultzea zor niola sentitu nuen...

—Beno, Eider, ba hemendik aurrera behar duzunean nirekin hitz egin dezakezu, orain jada ez duzu zertan isilik geratu. Pozten nau nirekin izan duzun konfiantzak.

—Bai, ez dut honetaz gehiegi hitz egin orain arte, egia da.

—Ba eskertzen dizut. Eta zorte on pisuaren kontuarekin. Kontatuko didazu nola doan gai hori. Izar urdinaren erdian besarkatu dute elkar bi emakumeek eta bata besteari begira urrundu dira, buelta lehenago nork emango, jendeak estropezu ez egiteko alde batera egin behar zuelarik.

—Aio, aio. Zaindu!

—Aio, bai, bihar arte!

GOIZ osoa etxea txukuntzen eman du. Balkoiko ateak eta leihoak erabat itxita, erratzarekin armiarma sareak kentzen pasa du denbora luze. Armairuak husten eta kutxak betetzen beste hainbeste. Gela txikian gauzak pilatzen doazen heinean etxea hutsago eta garbiago ageri da, neutroago, inpersonalago. Eiderrek erratza pasa eta pinu usaineko detergentea bota du gela guztietan, erosketak egin ditu, gortinak eta maindireak garbitu ditu eta etxe barruko esekitokian zintzilikatu, hautsa kendu du altzari guztietan eta komunean garbiketa sakon bat egin du. Noizean behin atsedean hartu eta telefonoa begiratu du, Idealista, berriak, argazkiak. Landerri deitzekotan egon da baina tonua eman aurretik deia moztu du. Aitari bai deitu dio, eta etxea oso polit geratzen ari dela errepikatu dio behin eta berriro.

Argintxeko terrazara iritsi denean lagunak bertan zeuden jada.

—Kaixo!

Denak altxatu dira bina musu ematera. Ainhoak besarkada bat eman dio.

—Zer nahi duzu? Nik aterako dizut —galdetu du Iratxek.

—Ardo zuri bat, mesedez.

—Zer moduz? —galdetu dio Leirek esertzen utzi gabe.

Eiderrek azkar erantzun du, pixka bat aztoratuta. Kontatu die goiz osoa garbiketetan eman duela, pisua alokatzea ez dela batere erraza, bikote batek deitu duela baina gero atzera egin dutela eta besteek galdetu aurretik aipatu du aita ondo dagoela eta goraintziak eman dizkiola beraientzat. Galderen beldur dela dirudi eta oso azkar hitz egin du, besteei aurreratzeko aukerarik eman gabe.

—Zer moduz dago alaba? —galdetu dio Iratxeri ardoa ekarri dionean.

—Ondo, Leioan dago unibertsitatean. Pozik dabil.

—Eta noiz iritsi zara? —galdetu du Estik irribarre handi batekin.

—Atzo —erantzun du Eiderrek jada pixka bat lasaiago—. Azken hilabetea aita zaintzen egon naiz, Bilbon. Atzo iritsi nintzen hemengo etxera. Eta liztorrek hartuta aurkitu dut!

—Nola?

—Bai, liztorrek habia egin didate balkoian. Gaur arratsaldean etorriko dira kentzera.

—Beno, hitz egingo dugu festei buruz? Zu hemen egongo zara?

—Ez dakit oraindik, segun eta pisua alokatzea lortzen dudan edo ez...

—Bestela nire etxean gera zaitezke —esan dio Ainhoak, eskua sorbaldan jarritz.

—Ikusiko dut, eskerrik asko.

Mozorroek hartu dute ondoren elkarrizketaren haria. Batak eta besteak ideiak bota dituzte eta mozzorro bakoitzaren aldekoak eta kontrakoak aztertu ondoren denak nahiko ados agertu dira txorimaloz mozzorrotzearekin. Eiderrek ez du asko esan. Lagunak aztertu ditu hitz egiten zuten bitartean, haien energia ezberdinak, haien ahotsak, haien mugimenduak. Ardoari trago txikiak eman dizkio eta irribarre egin du lagunak haien artean bromak egin dituztenean. Koadrillen jaitsierari buruz hitz egin dute, mozzorro lehiaketari buruz eta playbackari buruz, baina aurten azken honetan parte ez hartzea erabaki dute.

—Ez daukagu jada horretarako adinik.

—Ea aurten koadrilla gehiago animatzen diren festetan parte hartzera —esan du Eiderrek.

—Badirudi baietz, geroz eta gehiago daude azkeneko urteetan.

—Udatiarrok lagundu dugu horretan —txantxa egin du Eiderrek.

—Ba bai —esan du Ainhoak— azkenean “etorritakoek” koadrillak puztu dituzue.

—Eta hala ere beti izango gara “etorritakoak”.

—Ba bai, hala izango da —esan dio barrezka Leirek, sorbaldarekin kolpetxo bat emanez.

Agurrak etorri dira ondoren. Senarraren familiarekin bazkaria, semeari pisuz aldatzen lagundu beharra, janaria prestatu beharra, arratsaldean goiz hondartzara joan nahi izatea... zarata handia ateraz altxatu dira metalezko mahaitik eta ardo kopa hutsek klin-klan egin dute. Besarkadak eta musuak elkarbanatu dituzte.

—Antolatuko ditut mozzorrorako lanak eta esango dizuet —erabaki du Iratxek, alde egin aurretik. Leirek eta Estik ere bere bidea hartu dute.

—Ea laster ikusten dugun berriro elkar, ez alde egin agurtu gabe, Eider!

—Lasai...

—Aio!

Ainhoa eta Eider bakarrik geratu dira eta auzorako bidea hartu dute.

—Gustura? —galdetu du Ainhoak.

—Bai, aspaldiko...

—Pisuarena orduan zaila?

—Bai, beno, oraindik goiz da. Gaur ilusionatu naiz bikote horrek deitu duenean, baina azkenean beste pisu bat ikusiko dutela esan didate...

Ainhoak ez du erantzun eta isilik jarraitu dute pixka batean. Jende mordoa dabil larunbat eguerdi honetan, familiak, lagunak, terrazetan eta kaleetan. Giroa dago. Eiderrek ingurua begiratu du eta irribarrea atera zaio. Beroa egiten du eta bi lagunak mantso doaz etxera bidean, inor zain ez dutelako lasai, eguerdia luzatu nahiko balute bezala.

—Ainhoa, eskerrik asko atzokoagatik. Niretzat oso zaila da gauza horiei buruz hitz egitea, egia esanda oraindik ez dut ulertzen zergatik atera zitzaidan dena hain erraz zurekin, zergatik animatu nintzen bizitakoa kontatzen... eta eskertzen dizut nola entzun ninduzun.

—Ez kezkatu, ni ere poztu nintzen nirekiko konfiantzagatik eta gustura entzun zintudan.

—Benetan, eskerrik asko.

—Lasai.

Isilik gurutzatu dute errepidea eta une batez geldirik geratu dira bere bideak banantzen dituen izkinan.

—Ez duzu festetan egoteko gogo handirik, ezta?

—Zaila da... oraindik ez dut nire lekua topatzen.

—Badakit. Lasai, zuk ikusi eta erabakiko duzu. Eta nirekin kontatu behar duzunerako.

—Mila esker.

Bi lagunak besarkada labur baina estua eman diote elkarri, eta gero bakoitzak bere bidea hartu du, Eiderrek zuzen portalera eta Ainhoak ezkerrera, bata bestearengandik urrunduz.

IV

ARRATSALDEKO ZORTZIAK DIRA eta etxeko eginbehar guztiak bukatuta sofán eseri da Eider. Liztorrak aztoratuta dabilta inoiz baino zarata handiagoa ateraz eta batzuek kristalaren kontra jotzen dute barrura sartu nahian.

Tinbrea jo dute. Eider sarrerako ispiluaren aurretik pasa denean bere isla begiratu du. Neke aurpegia dauka, baina erakargarri ageri da ilea nahastutako motots batean bilduta eta beroari bizirauteko praka motzak eta tirantedun kamiseta zahar bat jantzita. Onespen keinua egin du eta atea irekitzera abiatu da.

—Arratsalde on —esan dio udaltzainak.

—Arratsalde on...

Udaltzainaren atzean hiru suhiltzaile daude, irribarretsu.

—Balkoian dago —esan du Eiderrek, albo batera eginez.

Udaltzaina sartu da lehenengo eta hiru suhiltzaileak atzetik. Eiderrek atea itxi eta arnasa sakon hartu du, irribarre txikia egin du, baina sorbaldak eta kokotsa tenkatu zaizkio. Lau gizonak egongelan sartu dira eta balkoiko leihotik liztor habiari begira egon dira une batez, haien artean gauzak komentatuz eta prozedura zehaztuz. Udaltzaina pixka bat aparte geratu da eta Eider, non jarri ez dakiela, atean geratu da, oinak handik ihesi atera nahiko balute bezala pasabidera zuzenduta.

—Kafe bat? —esan du, edozein gauza esaten duenaren ahots dardartiarekin.

—Ez, mila esker —erantzun dio Udaltzainak begirada hutsik dagoen amonaren armairu handi marroian galdurik—. Nik lagundu besterik ez ditut egin, orain beraien lana egiten utziko diet. Dena kontrolpean?

—Bai, gure esku. Mila esker —esan du suhiltzaileetako altuenak.

—Arratsalde on, anderea —esan du udaltzainak eta aterantz abiatu da. Eider atzetik joan da atea ireki nahian baina udaltzainak berak bakarrik ireki du eta atzera begiratu gabe alde egin du. Eiderren sorbaldak eta kokotsa lasaitu egin dira.

—Gu ateratzen garenean itxi ondo atea. Baina adi egon bukatzen dugunean berriro irekitzeko!

—esan dio alai suhiltzaileetako beste batek.

Aurpegiak ondo estali, eskularruak jantzi, balkoiko atea ireki eta azkar batean atera dira hirurak, tresna eta katxarro ezberdinekin, eta Eiderrek azkar itxi du atea haien atzetik. Hala ere liztor bat sartu egin da egongelan eta baso eta paperaren teknika erabili du berriro, sukaldeko leihotik botaz. Egongelara bueltatu da eta suhiltzaileen operazioari adi egon da. Hauek, xiringa handi bat sartu dute habiaren barruan, eta eskuko bonba bati eragin diote, barrura gas berezi bat botatzen duena. Liztor batzuk eroturik bezala atera dira habiatik eta berehala erori dira lurrera, hilzorian. Gasa habiaren zulo txiki guztietatik atera da eta suhiltzaileek bonbari eragin diote behin eta berriro. Eiderrek ikuskizuna leihoaren beste aldetik aztertu du, urduri eta liluratuta aldi berean. Bat-batean telefonoko pantaila piztu da eta AINHOA izena agertu da letra larriz. Harrituta, Eider telefonoa hartu eta kristaletik pixka bat aldendu da.

—Ainhoa, kaixo.

—Kaixo, Eider, zer moduz?

—Ba momentu berezian harrapatzen nauzu, suhiltzaileak ditut etxean liztor-habia kentzen.

—Bai? Ai, ene!

—Ez neukan ikusita nola egiten duten, sekulako ikuskizuna da.

—Eta ez dira barrura sartuko?

—Dena itxita daukat. Suhiltzaileak kanpoan daude eta ni barrutik dena ikusten.

—Hara, ados...

Suhiltzailetako batek keinu bortitzak egin ditu liztorrak bere gainetik kendu nahian, nahiz eta erabat babestuta dagoen. Besteek habiaren barruan gasa botatzen jarraitzen dute.

—Zer? —galdetu de Eiderrek.

—Ezer, ba... gauzatxo bat komentatu nahi nizun.

—Esan.

—Ba ez dizut ezer esan, baina nik ere nire pisua alokairuan daukat eta...

—A...

—Badakizu, banandu naizenez eta orain diru sarrera bat ondo datorkigu...

—Baina...

—Zer?

—Ez dakit, harritzen nau ez atzo ez gaur ez didazula ezer komentatu.

—Ez dakit, ba, beste gauza batzuekin ginen...

—Honetaz hitz egin dugu konkretuki, eta atzo galdera nahikotxo egin zenituen.

—Ba ez zait bururatu...

—A...

Kanpoan suhiltzaileen eta liztorren arteko gudak jarraitzen du, eta geroz eta gehiago dira lurrian erdi hilik dauden animaliatxoak.

—Kontua da —jarraitu du Ainhoak— ikusi dudala zure pisua Idealistan, eta iruditu zait oso merke jarri duzula, ez? Esan nahi dut, prezioak dauden bezala, ba zuk oso merke jarri duzula zure pisua eta noski, orduan besteok ere jaitsi beharko ditugula prezioak, ze bestela ezin dugu zurearekin lehiatu —Eider isilik geratu da telefonoaren beste aldean—. Ulertzen didazu esan nahi dudana?

—Um... bai... baina... nik prezio normal batean jarri dut, nik ez dut honekin aberastu nahi...

—Bai, bai, badakit, baina agian pixkatxo bat igoko bazenu... eskertuko genizuke ze bestela gurea oso garesti agertzen da zurearen ondoan eta noski, inork ez digu alokatuko.

Eider aho zabalik dago laguna entzuten eta balkoian gertatzen ari dena behatzen. Berriro ere tenkatu zaizkio gorputzeko gihar guztiak eta begiak ireki-irekiak ditu. Zimurak biderkatu zaizkiola ematen du, eta zer esan ez dakiela bere ahotsak soinu txiki zentzugabekoak ateratzen ditu.

—E...

—Eider?

—Bai...

—Zer diozu?

—Ez dakit zer esan, Ainhoa, ez nuen uste zuk....

—Agian momentu txarrean harrapatu zaitut, liztorren kontuarekin eta abar, baina uste dut gauza logikoa dela eskatzen ari naizena...

—Ba...

—Orain nahastuta zaude, ikusten dut. Beranduago deituko dizut! Zorte on liztorrekin!

Ainhoak deia moztu du. Eider geldi-geldirik geratu da tarte batez telefonoa eskuan, eta ez da konturatu gasaren ikuskizuna bukatu dela eta orain suhiltzaileak espatula batzuekin habia paretatik kentzen ari direla. Eider, sofan eserita, oraintxe entzun berri duenarekin erabat zur eta lur, ez da mugitu ere egin, suhiltzaileetako batek kristalean kolpetxoak eman dituen arte.

Urduri begirada altxatu eta hiru suhiltzaileak ikusi ditu kristalaren beste aldean, etxera sartzeko imintzioa eginez. Erdikoak liztor-habia eskuetan darama baina jada ez da liztorrik ikusten hegana, ez habiatik kanpora ez barrura. Eiderrek, altxatu eta balkoiko atea ireki die.

—Listo —esan du altuenak.

—Orain erratza pasa beharko duzu —esan dio bigarrenak.

Hirugarrenak irribarre besterik ez du egin. Eiderrek ateraino lagundu ditu eta atea ireki die.

—Mila esker —esan die handik urruti dagoenaren ahots-hari delikatuarekin.

BALKOIKO ATEA irekita gelditu da eta konturatu denean korrika joan da Eider atea ixtera, badaezpada. Gero kanpora begiratu eta hegana egiten duen liztorrik ez dagoela ikusi du, baina balkoiko zorua hilkako liztorrez beterik dago. Nazka keinua egin du eta etsituta, sofana eseri da berriro. Telefonoa eskuan du oraindik eta deien erregistroan sartu da. Ainhoaren izena agertzen da lehenengo lerroan eta hari begira egon da tarte batez, hatzarekin telefonoa etengabea blokeatuz eta desblokeatuz, urduri. Bat-batean haserrealdiak harrapatu du eta telefonoa sofara kontra bota du. Sukaldera abiatu da eta erratza eta pala hartu ditu. Bueltatu denean telefonoa deika dabil berriro: AINHOA.

Erratza eta pala eskuan telefonoari begira geratu da, eta tarte batez utzi dio sofara gainean dardard egiten. Baina ondoren telefonoa hartu eta eskegi egin du. Berriro ere deitu du Ainhoa, eta berriro ere eskegi du Eiderrek. Hirugarren aldiz gauza bera gertatu da. Azkenean Eiderrek eskoba eta pala utzi eta AINHOA izenaren ondoko puntutxoak sakatu ditu, blokeatzeko aukerara gainean hatza pausatuz. Zimurrez beterik dago, sorbaldak atezaturik, buruarekin ezezko txikiak egiten ditu eta masailezurra estutzen du indarrez. Horrela egon da, denbora gelditu izan balitz bezala, eskultura baten antzera, hatza dardarka eta begiak lausoturik. Sakatu egin du azkenean. “Blokeatu”. Telefonoa sofara gainera bota eta erratza eta pala hartu ditu.

Balkoira atera da. Kontu handiz bultzatu ditu hildako liztorren gorpu txiki guztiak palara barrura, bakar bat ere geratu ez zedin ondo kontrolatuz, masakre handi horren testigurik ez, eta sukaldera abiatu da, zakarrontzira botatzeko.

Etxe osoko leihoak ireki ditu, behingoz.